

Euskararen egunean Bilbora begira

2010-12-03



Euskararen egunean, euskararen egoerari buruzko hausnarketa egitean, ezinbestekoa da Bilboko udalerriri begirada sakon bat botatzea. Izan ere, Bilbo ez da soilik Euskal Herriko udalerririk handiena eta Euskal Herriko eskualde populatuenean buruan dagoena, horrek berezko garrantzia ematen diolarik, **Bilbo euskaldun kopururik handiena duen udalerrria da, baita euskalduntze bidean dauden pertsonen kopurua ere.**

Bilbon, 83.354 euskaldun bizi dira, 2006ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikaren arabera. Horiekin batera, beste 82.339 biztanlek badute euskara ezagutza maila bat, ia euskaldunak egiten dituenak.

Euskal Herrian bizi diren euskaldunen (praktikan, munduan diren euskaldun guztien) %10 inguru eta ia euskaldunen %15 inguru Bilbon bizi dira.

Datu hauek oso esanguratsu eta garrantzitsuak dira Euskal Herria kontuan hartuta, baina baita Bilbo kontuan hartuta ere.

Euskaldunen kopuruak gora egin du azken urteotan eta hori poztekoa da. Egun, Bilbon bizi den lau biztanletik bat euskalduna da (%24), bese bat ia euskalduna (%24). Baina, zoritzarrez, beste bi biztanleek (%51), ez dakite euskaraz; Bilboko biztanleen erdia erdaldun elebakarra da euskarari dagokionez.

Datu hauek beraz, errealitate gordin bat adierazten dute. Hizkuntza bien arteko izatezko pisua, hiztunen portzentajea alegia, erabat desorekatuta dago. Euskaldunak erdaldunen erdia baino ez dira. Horrez gain, euskaldunak elebidunak dira gaztelaniarekiko, gure inguruko hizkuntza dominantea eta Hego Euskal Herri osoan ofiziala den bakarrarekiko. Erdaldunek, aldiz, ez dakite euskara. Horrek, oso zaila egitendu euskaraz normaltasunez bizi ziteke.

Bilbon, euskaldun gehien duen udalerrian, euskarak hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen du. Herritarrek ez dituzte aukera berdinak gaztelania ikasteko, gaztelaniaz egiteko eta euren bizimodua gaztelaniaz garatzeko, edo euskara ikasteko, euskaraz egiteko eta euren bizimodua euskaraz garatzeko.

Trantsizio garaitik hona euskararen estatus legalaren aldaketak eta, batez ere, herri mugimenduaren bultzadak eta gizarteak euskararekiko izan duen atxikimenduak hobekuntzak ekarri dituzten arren, euskara eta euskal hiztunak egoera gutxituan aurkitzen dira.

Azkenik, hainbat erakunde publiko eta pribatuetatik ahalegin handiak egiten ari diren arren euskara babestu eta sustatzeko, **Bilboko Udalean ez dugu ikusten euskarak bizirauteko duen erronkaren pareko ahaleginik, ez politikoki ezta materialki ere.**

2010 honetan, bilbotar helduen euskalduntzerako azken hogeitun urteotan indarrean egon diren **diru-laguntzak erabat murriztu** egin ditu Udalak. Ezin ahaztu ere, urtero Bilboko



Udala **hizkuntza eskubideak urratzen dituen Udalen zerrendaren hasieran** kokatzen dela.

Ezin dugu ahaztu, iruzurrean oinarritutako **Gasteizko gobernu berriak euskararen aurka aurten aurrera eramandako pausuak**: euskararen ezagutza bermatzen ez duen **A ereduan matrikulatzeko aukera ikastetxe guztietara zabaldu** izana, hilabete batez **euskaraz ez dakien irakasle bat inposatu** izana Deustuko ikastolan eta euskara murrizten duen **hiru eleko eredia Bilboko sei ikastetxetan ezarri** izana.

Salatu nahi dugu ere, euskara ofiziala izan arren, **Lanbide Heziketarako ikastaroen %40,90 soilik egin ahal direla euskaraz** Bilboko ikastetxe publikoetan

Honek guztiaren aurrean honako hausnarketa egiten dugu:

1.- Bilbok berebiziko garrantzia dauka euskararen berreskurapenerako, bertan dagoen euskaldun eta ia euskaldun kopuruaren aldetik baita, oro har, gure hiriak eta ingurune metropolitanoak duten pisu demografikoaren aldetik ere.

2.- Zoriontzekoa da Bilboko euskaldun kopurua gora egitea ahalbidetu duten guztien konpromisoa eta ahalegina: euskalgintzako erakundeak, haurren gurasoak, euskaldundu eta alfabetatu diren helduak, euskararen erabilera zientifiko, tekniko eta jasoan murgilduta dauden profesional eta erakundeak, euskarazko hedabideen sorkuntza eta garapenean murgildu diren guztiak...

3.- Bilbon euskara ikasi, euskaraz egin eta bizimodua euskaraz garatu ahal izateko aukera berdintasuna bermatze aldera, **biderkatu egin behar da erakunde publikoen ahalegina** euskara babestu eta sustatzeko bidean. **Helburua, herritarrek euskaraz gaztelaniaz bezain ondo bizitzeko dituzten oztupoak ezabatzea.**

Hartara, ezinbestekoa jotzen dugu:

- Udalaren **erabilera Plan berri bat egitea**. Bitartean, indarrean dagoen Planean onartutako neurriak bete egin behar dira.
- **Diagnostiko Globala**: Ezinbestekoa da Bilboko euskararen egoerari buruzko diagnostiko global bat egitea euskara arloan ari diren eragile sozial eta kulturalen parte hartze zabalarekin.
- Pate hartze hori artikulatzeko **Euskararen Udal Kontseilua** antolatu behar da.
- **Plan Estrategikoa**: Diagnostiko horren ondoriozko Plan Estrategiko bata adostu behar da, behar diren baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornituz.
- **Euskararen Ordenantza**: Udalerrian euskararen ofizialtasuna bermatzeko, alegia, euskarak gaztelania duen babes eta sostengu maila berdina izateko ekimen edo aginte publikoaren menpe dauden eremu guztietan.
- **Neurri premiazko hauei lehentasuna ematea**:
 - Helduen euskalduntzerako **diru-laguntzak berrezarri eta handitu**, bilbotar heldu guztiei (bertan jaoiei zein kanpotik etorritakoei) euskaraz doainik ikasteko aukera emanez.



- Elebitasuna bermatze bidean **D ereduaren aldeko apustu garbia egitea**, elebitasuna bermatzeko. A eta B ereduak ez dute elebitasuna bermatzen eta hori oreka lingüistikoaren kaltetan doa.
- Udalerriko **Euskal hedabideen aldeko laguntza** politikoa, administratiboa eta ekonomikoa bideratzea (aldizkako zein egunerokoen aldekoa, telebista barne).
- Udalaren eta gainontzeko instituzio publikoek Bilbon, zuzenean zein kanpoko enpresen garatzen dituzten programetako komunikazio jarduera eta ekintzetan **euskarak gaztelaniak duen estatus berdina eskaintzea**, kalitatean, kantitatean eta lehentasunean.
- Euskara Euskal Herriko hizkuntza dela **Bilbotar berriei zuzendutako sensibilizazio kanpania** bat abian jarri.

Konpromiso sendoa hartzen dugu, helburu hauek lortze aldera behar diren ekimenak garatzeko. Eta bide batez, **abenduaren 3rako** euskalgintzan aritzen diren taldeek Euskararen Ordenantzak aldarrikatzeko Udaletxean deitutako eguerdiko kontzentrazioarekin zein arratsaldeko **egitarau oparoarekin bat egiten dugu** eta deia luzatu nahi diegu herritarrei ekimenetan parte hartzeko.

Bilbo, 2010eko abenduaren 1ean.